

Euskararen astea 2009-2010

2009/11/24

Datorren astean zehar Euskararen astea ospatuko du Mondragon Unibertsitateak. Hiru fakultateetan hitzaldi-sorta interesgarria eskainiko da, astelehenean hasi eta ostegunean bukatu. Guztiek ere gaur egungo gaiak jorratuko dituzte eta, aldi berean, euskararekin lotutakoak.

Euskararen egunean bertan ekitaldi ludikoak ere izango dira fakultateetan: Olinpiadak, jokuak, ahozko neurketak, bertso bazkaria...

Hona hemen aste osoko egitaraua:

AZAROAK 30, astelehena

- **12:15 Hasi eta bizi.** Garaion naturArtea elkarteak. Enpresa Zientzien Fakultateko Bidasoako Campusa.
- **16:30 .EUS domeinua: euskara eta euskal kultura interneten.** Iratxe Esnaola, Deustuko Unibertsitateko irakaslea. Eskola Politeknikoa, Arrasate

ABENDUAK 1, asteartea

- **9:00 Hasi eta bizi.** Garaion naturArtea elkarteak. Enpresa Zientzien Fakultateko Oñatiko Campusa
- **15:00 Euskal coaching.** Koikili Lertxundi, Athletic Clubeko jokalaria eta Itzarri aholkularitzako zuzendaria. Eskola Politeknikoa, Arrasate.

ABENDUAK 2, asteazkena

- **9:30 Euskal Wikipediak: sorrera eta gaur egungo egoera.** Mikel Iturbe, Euskal Wikipediako kudeatzailea eta Eskolako ikaslea. Eskola Politeknikoa, Arrasate
- **16:15 Euskara eta sare sozialak.** Luistxo Fernandez, Codesyntax. Enpresa Zientzien Fakultateko Oñatiko Campusa

ABENDUAK 3, osteguna

- **11:00 Pailazo euskalduna, irakasle euskaltzalea.** Jose Mari Agirretxe, Porrotx. HUHEZI, Eskoriatza
- **13:30 Euskal Wikipediak: sorrera eta gaur egungo egoera.** Mikel Iturbe, Euskal Wikipediako kudeatzailea eta Eskolako ikaslea. HUHEZI, Eskoriatza

